

---

# ZORIONEKO HONDAMENDIA

Testua: ADELA TURÍN

Irudia: NELLA BOSNIA

Itzulpena: FERNANDO REY

---

Kartoi gogorrean egina. 21,5 x 27 cm. 40 orrialde. 15 €.

**Zorioneko hondamendia** (euskara)  
ISBN 978-84-7681-845-9. Kalandraka-Pamiela.

**Una feliz catástrofe** (gaztelania)  
ISBN 978-84-8464-887-1. Libros para soñar.

**Unha feliz catástrofe** (galegoa)  
ISBN 978-84-8464-888-8. Tras os montes.

**Una catástrofe afortunada** (katalana)  
ISBN 978-84-8464-889-5. Kalandraka.

**Uma feliz catástrofe** (portugesa)  
ISBN 978-989-749-029-3. Livros para sonhar.

*Hondamendia gertatu zen arte, Sagueta familia hiriko auzo  
on bateko etxe handi batean bizi zen, sukaldearen  
eta trastelekuaren arteko zulo batean [...]*

Eguneroko errutina nagusitzen da familia honen bizimoduan. Rolak zorrotz bereiziak daude: Sagueta jauna lanetik nekatuta eta burura beteta iritsi, eta, etxera itzultzean, deskantsatu nahi du. Emazteak etxea txukun du, afaria prestatuta, eta umeak aitaren zain daude arretaz haren istorioak entzuteko. Hondamendiak dena hankaz gora jarriko du: etxerik gabe geldituko dira, baina, gainera, bizimodua erabat aldatuko die.

Ama eta emazte "ezti, apal eta otzanak" ausardiaz salbatuko ditu ume guztiak; ia ezer izan gabe, beste sagu-zulo bat antolatuko du berehala, eta, handik aurrera, sagu kumeak eta ama bera abentura zoragarriak bizitzen hasiko dira, bestelako bizimodua egiten.

Adela Turínek eta Nella Bosniak 1975ean sortu zuten alegia hau emakumeak familian eta gizartean duen tokiari buruz aztertzeko eta gogoeta eragiteko. Ia 40 urte geroago, istorioak indarra izaten segitzen du, eta lehenago bezain beharrezkoa da. Koedukazioari eta berdintasunari buruzko kontakizuna da, umore eta dibertsio dosi handiak dituena. Irudiak ere halakoxeak dira, koloretsuak. Pertsonaiak gizatiartuak daude, etxeko giroan kokatuak, eguneroko traste eta garbiketa-gaien artean.



- 
- **Gala:** familiako rolen eraldaketa.
  - **Adin egokia:** 5 urtetik aurrera.
  - **Nabarmentzeko modukoak:** baterako hezkuntza, berdintasuna, estereotipo sexisten kontrako borroka; "Arturo eta Klementina", "Arrosa eta leuna" eta "Bonobo betaurrekodunen egjazko historia" ipuinen irudigilea.
- 

## Adela Turín

(Italia, 1939)

Artearen historialaria eta idazlea. 60ko hamarkadan haurrentzako literaturaren ezaugarri sexistak aztertu zituen. Milanen, Rivolta taldean hartu zuen parte (mugimendu feministari lotutako taldea). Familia patriarkalaren generoko bazterkeriari gogo egiteko asmoz, «Dalla parte delle bambine» bilduma sortu zuen, eta 1975etik 1980ra bitartean, hogeit hamar liburutik gora argitaratu zuen. Adela Turín eta Nella Bosnia, garai hartan, "La Rinascente" ari ziren lanean. Urte batzuk geroago, Parisera joan zen, eta han, Silvie Cromer-ekin, «Du côté des filles» elkartearen sortzailea, 1994az geroztik hezkuntzako materialen sexismo kasuak aztertzen dituen eta argitaletxe, erakunde eta herritarrak sentsibilizatzeko mekanismoak sortzen dituen. Gaur egun, irakurtzeaz eta bidaiatzeaz gainera, artikuluak idatzi eta hitzaldiak ematen ditu.

## Nella Bosnia

(Italia, 1946)

Artea Milanen ikasi zuen, eta dekoratzaile eta estilista lana egin zuen "La Rinascente" enpresarentzat, ehungintzako produktuak sortzen. Enpresan, lan horretan, Adela Turín ezagutu zuen, eta, harekin batera, «Dalla parte delle bambine» bilduma sortu. Italiako eta Frantziako zenbait argitaletxerentzat egin du irudigile lana.



---

www. **Kalandraka**.com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela**.com  
etxea  
soltxate@pamiela.com